



## **Petronorrek 1,4 hektareako baso-berritzea bultzatu du, Muskizko ondare ekologikoa lehengoratzea helburu**

- Repsol Fundazioak eta Sylvestirs Taldeak bultzatutako ekintza hau Itsaslur proiektuarekin lotuta dago
- Proiektu honen bidez, 12 espezie autoktonotako 844 landare jarri eta tresna didaktikotzat diseinatutako bi arboreto sortu dira.
- Muskizeko mineral-kargaleku zaharrean kokatuta, ekimenak biodibertsitatea kontserbatzea du helburu, prestakuntzarekin eta ingurumen-dibulgazioarekin batera

**Bilbon, 2026ko ekainaren 5ean.** Petronorrek Itsaslur proiektuaren lehen ekintza aurkeztu du, Repsol Fundazioak eta Sylvestirs Taldeak bultzatuta, Muskizko ondare ekologikoa lehengoratzea helburu duena. Baso-soildutako eremuak berreskuratu eta inguruko ikasleentzako hezkuntza-arboretoak sortzera bideratuta, biodibertsitatearen kontserbazioa ingurumenaren inguruko dibulgazioarekin eta hezkuntza, kultura zein gizarte arloetako zerbitzuen sorrerarekin uztartzea da proiektu honen xedea.

Baso-berritzean, 12 espezie autoktonotako 844 landare jarri dira, eta bertako zuhaitz eta zuhaixken 20 espeziez osatutako bi arboreto ere sortuz, tresna didaktikotzat erabili ahal izateko.

Ekimen hau Muskizko mineral-kargaleku zaharraren gainean garatu da, Donejakue Bidearen eta Arena hondartzaren inguruan, eta lehengoratze ekologikorako ekintza ez ezik, belaunaldi berriei ingurune naturalaren ezagutza eta kontserbaziora hurbilduko dituen prestakuntza-baliabidea ere izango da.

Ekimena Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Muskizko Udala eta Petronor partaide dituen Itsaslurren Plan Zuzentzaileari atxikita dago.

Dokumentu horretan jasotako ekimenek euskal kostaldean landazabaleko paisaia mantentzea dute helburu, hainbat jarduera modu jasangarrian integratuz: nekazaritza eta



abeltzaintza, baso-berritzea, leheneratze ekologikoa, nekazaritza-jardueren berreskurapena, ondarearen aitortza eta lurren beste erabilera tradizional batzuk berreskuratzea.

Aurkezpen-ekitaldian izan dira José Ignacio Zudaire Petronorreko zuzendari exekutiboa, Javier Torres Repsol Impacto Social-eko zuzendaria, Francisco Martinez Sylvestris taldearen sortzailekidea, Eduardo Briones Muskizko alkatea, Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua eta Arantza Atutxa Ingurune Natural eta Nekazaritzako diputatua.

José Ignacio Zudaireren hitzetan, “proiektu honen inaugurazioa beste urrats bat da Itsaslur ingurunearekin zein garapen jasangarriarekin arras konprometituta dagoen ikuspegi berritzailetik bultzatzeko. Zalantzarik gabe, Itsaslur proiektu partekatua da. Ikuspegi horretan oinarrituta, eremu honen zati bat lursailak lagatzeko erabili dugu, inguruko herrietako bizilagunek, eta bereziki Muskizekoek, abeltzaintza eta nekazaritzari lotutako jarduerak garatzeko aukera izan dezaten. Petronorren, ingurunea etorkizuneko aukera handiak dituen espazio bizia dela uste dugu. Guretzat, Itsaslur leku aparta da, basoberritzeko jardueretarako edo nekazaritza eta abeltzaintzako ekimenetarako aparteko potentziala duena, besteak beste”.

Bestalde, Javier Torresek Motor Berdearen irismenaren erakusgarritzat nabarmendu du jarduera hau, Repsol Fundazioak trantsizio energetiko eraginkor, jasangarri eta inklusiboa bultzatzeko abiarazitako tresna honen garrantzia azpimarratuz. Horrekin batera, berenbegeri nabarmendu du inpaktu hirukoitzeko inbertsioa kudeaketa-eredutzat duen garrantzia, balio ekonomikoa, onura soziala eta ingurumenaren birsorkuntza modu banaezinean bultzatzeko, elkar indartzen duten heinean.

### **Petronorri buruz**

Petronor Bizkaiko industriaren eragile nagusia da, zuzeneko enplegua ematen die 940 pertsonari eta zeharkako enplegua beste 6.000 baino gehiagori. Azken bost urteetan, 1.200 milioi euro baino gehiago inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Bizkaiko lurraldeari egiten dion ekarpenaren isla da Bilboko Portuko trafikoan duen pisua, % 40koa alegia, eta harexeri dagokio foru-ogasunen guztizko diru-bilketaren % 5,5.



Petronorrek hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatu den 936 milioi euroko ekarpena egin du.

[www.petronor.com](http://www.petronor.com)

VK Comunicación

**Informazio gehiago:**

**Virginia Knörr Barandiaran**  
944 01 53 06 / 629 156 031  
[virginia@vkcomunicacion.com](mailto:virginia@vkcomunicacion.com)